

» TELEGRAMA

Azaroaren 26an, 20:00etan, Nashvilleko (AEBetako Tennessee) **William Tyler** eta Elgoibarko **Amorante** musikariek Donostiako Imanol Larzabal aretoan (Lugaritz) joko dute *STOP* Abenduaren 2an, 20:00etan, Arrangoitzeko **Anje Duhaldek** eta Altzürüküko **Niko Etxartek** kontzertua eskainiko dute Bilboko BBK-n *STOP* **Havtajá Euska-di-Israel** kultur elkarteak antolatuta, *Holokaustoari buruzko heziketaren 13 zutabe nagusiak* erakusketa zabalik dago Gasteizko Judimendi Gizarte Etxean, azaroaren 17tik 30era bitartean, goizeko 10:00etatik gaueko 21:00etara *STOP*

» DISKOA

Ñabardurak



Iker Barandiaran



Dramatik-thlon ESTRICALLA

Stop Control Antirecords, 2016

"Dramatik-thlon" diskoa
Estricalla taldearen seigarren lana da.



Estricalla taldeak seigarren lana du honakoa. El Corazón del Sapo eta gerora Kuraia eta Matxura taldeetan aritutako Fer Apoak Kantabriako Kloakao taldeko kideekin egindako apustuak irmo jarraitzen du, ezbairik gabe; eta ez dago etenik, ezin da egon etsaiak dirauen bitartean.

Euskal Herriko eta, oro har, Espainiako Estatuko hardcore-punkari izaera eta izatea eman dio taldeak, amorru biziz eta iraultza pedagogiaz, iraganeko jakinduria eta gauzak egiteko modua berreskuratuz eta berrasmatuz.

Lorpen handiak egin dituzte orain arte, muturreko estilo hauen zaleei –zorrionekoak gu!– aire freskoa eskainiz, ondo sinetsita eta ahaleginduta zuk zeuk egizu ekimen xumeen bitartez ahotsik gabekoen jakinduria luzatuz, kontzientziak iratzartuz eta, ze karajo, barruan duguna ateraraziz.

Disko honek, beste guztiek bezala, diseinu, zita, bibliografia eta detaile oso zainduen gordeleku eta adierazle, ertz ugari ditu. Bat-batekotasunari eta oihu egiteko urgentiari arnasa eman eta gehiago hausnartu dute. Ñabardura gehiago eskaini dizkiete kantuei eta tenpoak ere

tarteka aldatu dira. Baina ez dute, ez, indarra eta amorrazioa galdu.

Aterkills gitarra rockeroak dituen zapatilazko hardcore-punka da, taldearen eguneko gosaria. *Krossrock*-k gehiago du urgentziatzko rocka metalarekin, doinu pisutsuekin eta ia espiralekoekin batzetik. Eta *Nik-pizar-nik* piezak *Life But How To Live it*, *RKL* eta rock borrokalariena ezkontzeko gai da. Hortik aurrera, doinuak eta estrukturak biderkatu egiten dira: *MTZTT-438*-k bere baitan hartzen ditu psikodeliaren uzta, rock gogorra, Anestesiaren tamainako pisua eta Kuraia edo Eskandinabiako laka ia orkestrala den entsalada lortuz; eta *Bullet Lavolta* (AEB) talde errebindikatuaren abeslari Yukkie Gipek parte hartzen duen *X-izpian* hardcore-punk azeleratua beldurrezko pisuzko psikodelia ipuina bihurtzen da ezinbestez. Metala ere presente dago lanean, eta izenari men eginda *Karniborous tb* iragarlean thrash-metal astuna eta abiadura handiko melodia batzea lortu dute. Bestalde, ohikoak baino kantu luzeagoak idatzi dituzten honetan, diskoaren soinuaren erantzule garrantzitsua den Mikel Kazalisek (Fidelenea estudioa) 40 segundo pasatxotan zapatilla gabe utzi gaituen *XXXprinter hautsa* erditu du taldearentzat. Estricallaren marka diren osagaietara itzulita, *Lurrunkor*-en abiadura eta amorrazioak arnasa moztu ditu; eta azkenik Abio handiari teklaturkin hegan egiten utzi diote *Sokamothor* malenkoniatsu eta erritmikoan, zein *Zaldiko maldi-k.o* epilogoan. ■